ARRAUNLARIAK

GETARIARRON TOPAGUNEA

64. zenbakia - 2007ko iraila

artzape

] TXISTULARI TALDE BERRIA]

TURISMOA GETARIAN]

Futbol Taldea
Lehen Urratsak

TXOKO
ERRETEGIA

kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

ITSAS
MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
www.maisor.com
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA



OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

Jan al duzue aspaldian masustarik?

artzape

64. zenbakia

2007ko iraila

]5/Inkesta: Zer iruditzen zaizu Getaria eta Zarautz arteko pasealeku berria?

]6-7/Getarian zer berri?

Txistulari talde berria

Turismoa Getarian



]8-11/Elkarrizketa/: herriko arraunlariak

]12-13/Argazkien Txokoa: Salbatoreak 07

]14-15/Erreportaia: Getariako Keta Futbol Taldea

]17/ELAN-EUSKADI

]18-19/Petrilaren harritarteetatik

]23/Akordatzen: Ataloa

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Harkaitz Etxaniz, Kepa Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro [kolaboratzaileak] Nika Lertxundi, Uxue Alberdi [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1.125 ale
[lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

KURDISTANEN JARRIAK

Ze metafora beldurgarria
den Turkiako bandera!
Gorria da goitik behera,
Amed hirian mehatxu gisa
zabaltzen dena airera.
Ilargi-erdi bat ere badauka
izar txikiaz gainera;
baina zerua ote da?
Hegazkinetik jaitsi ta sartu
ostean bere barnera,
hartu diogu odolez busti
den zeru baten tankera.

Poliziekin nahasten dira
kaleetan eskaleak.
Horixe dira kaleak:
haurrak, begiak, uniformeak
ta puntan dauden ileak.
Isildutako hitz sentituak
eta kezko nargileak;
garaileak, galtzaileak;
espaloietan esertzen diren
zapata garbitzaileak…
Aspaldi ez dira bertatik pasa
herriko zapaltzaileak.

Ipar Kurdistan oso aspaldi
hustu zutelako bakez:
minaz eta minez betez;
herri honetan geroztik ezer
ez dabil zuzen ta artez.
Duela gutxi hiru haur tiroz
hil zituzten su eta kez;
lurrean etzanda ahuspez
gelditu ziren gorpu txikiak
azken begirada batez…
eta geroztik gazi-gaziak
dira Tigris ta Eufrates.

Egilea: Uxue Alberdi
Doinua: "Historiaren hari zahar hori"

Getariako Txakolina
DENOMINACION DE ORIGEN
Aldamar Parkea, 4
TEl: 943 14 03 23 Faxa: 943 89 60 30
20808 GETARIA
www.getaraiakotxakolina.com/Info@getaraikotxakolina.com
AGERRE ARREGI GAINTZA TALAI-BERRI
AIZPURUA BASA-LORE GAÑETA TXOMIN ETXANI
AKARREGI-TXIKI EIZAGUIRRE REZABAL ULACIA
AMEZTOI ETXETXO SANTARBA ZUDUGARAI

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

] inkesta

Zer iruditzen zaizu Getaria eta Zarautz arteko pasealeku berria? Eta bizikletaz ibiltzea?

Oso ona iruditzen zait, egoki dago oso, jende pila ibiltzen da; hemendik aurrera kolesterola eta horrelako gauza guztiak bertan utziko ditugu. Bizikletak ibiltzea ez zait ondo iruditzen, zati batzuetan pasealekua estutu egiten baita, eta egokiago iruditzen zait oinezkoentzat bakarrik izatea. Egunero ez, baina ahal dudan guztietan etortzen naiz.

Mertxe Mendizabal

Oso ederra da, zoragarria; ni egunero etortzen naiz, Argiñanoraino joan eta etorri, hamar bat kilometro. Bestalde, niri gertatu zait bizikletekin topatzea, familia bat umeekin; ulertzen dut seguruagoa dela, baina leku batzuetan bidea estutu egiten da eta arriskutsua da.

Marial Luisa Esteban



Ni estreinako aldiz joan naiz gaur umearekin eta oso egokia iruditu zait, ordeka-ordekan oso ondo egiten da ibilbidea. Ez ditut bizikletak topatu, baina oinezkoentzat egokiagoa dela iruditzen zait.

Faustino Goikoetxea

Oso ondo dago; lehen ez nintzen joaten eta orain oso gustura joaten naiz. Bakarrik baldin banoa Zarauzko parrokian buelta egiten dut, baina lagunarekin banoa, Argiñanoraino joaten gara, han kafea hartu eta buelta. Lanik ez daukadan guztietan aprobetxatzen dut joateko. Bestalde, bizikletak ikusi ditut ibilbidean, molestatu eta beldurra ematen dute.

Lucia Urresti

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

Ane Azkue

Patxara…

Mihia lotsaren katetik askatzeko, hartu kristalezko botila bat eta patxaraz igurtzi el *culo de botella* gorri ilun koloreko basaran borobilez, banan-banan, patxara osoz. Ondoren, ausardia elikatzeko, garrafaren barruko ur koloreko anisaren gozotasunarekin bainatu, patxaraz, botilako basaran multzoa, ipurditik hasi eta leporaino iritsi arte, kanela zotz batekin afrodisiako bihurtuz. Kortxoaz estali lepoaren zuloa, anisaren usain gozoak ihes egin ez dezan. Utzi botila leku ilun batean hiruzpalau hilabetez, hartu patxaraz egonaldia, eta ez ahaztu noizean behin emakume itxurazko gorputza buruz behera eta gora astintzeaz, basaranen goitibehera dantza bihurtuz. Gustuko zaporea lortzea da helburua. Dagoeneko hasierako pausoa eginda, zailena eta era berean garrantzitsuena, iritsi da benetako ordua: edateko gogoa pizteko, ireki botilaren oztopoa, eta beste kristalezko ontzi batera irazi (filtratu) zapi bat erabiliz, basaranaren hondarra edalontzian geratu ez dadin. Sartu kafe ale bat likido gorrian.

Edan lehen tragoxka, zaporea eztarritik behera sentitu bihotzeko balbula martxan jarri arte. Orduan aurpegiko masailetan argi gorria pizten bada, zorionekoa zu, txartel gorria, parranda gehiegi egin dituzu itxaronaldian, argi marroia pizten bada, ondo egin duzu lana, urdina bada, bina-bina egin behar dituzu patxaran botilak, eta horia bada, txartel horia, alerta bizian zaude, tranpa asko egin dituzu. Dena dela, inoiz ez galdu Itxaropena. Noski, basaranaren kalitateak egiten du kalitatezko patxarana. Orain eseri patxaraz eta dastatu patxaranaren patxara. Mihia lotsaren katetik askatu, ausardia elikatu eta gogoa piztu, hori da sekretua, askatu estatxak!

Hau izan da patxaranaren istorioa.

Esperantza TKE mailaren atarian geratu da

Ez da posible izan: Getariako *Esperantza* traineruak ez du datorren urtean TKE mailan jokatuko; joan den irailaren 22 eta 23an jokatu ziren play off-etan, nahiz eta estropada bikainak burutu, zentezima batzuengatik ez zituzten lortu San Migel ligara igotzeko behar zituzten adina puntu. Horrenbestez, Tiranek eta Arkotek lortu zuten TKE mailarako txartela. Dena den, nahiz eta azkenengo txanpa horretan ez lortu nahi zuten emaitza, ez da ahaztu behar burutu duten denboraldi bikaina, eta horregatik: ZORIONAK EGINDAKO DENBORALDI BOROBILAGATIK!!!

Arraunlariak, denboraldi guztian irabazitako banderekin, herritarren ongi etorria jasotzen.

Giro ederra Ernioko irteeran

Gure Txeru Elkarteak antolatuta, joan den irailaren 16an lagun talde polita bildu zen Erniora igotzeko irteeran; guztira ia 40 bat lagun. Horietako sei lagunek Getariatik Erniora oinez egin zuten ibilbidea, eta besteek, aldiz, autobusez Andazarretaraino, eta handik gora oinez. Giro aparta egin zien, eta iaz ez bezala, Zelatunen bazkaldu ahal izan zuten bertako erromeria entzunaz.

Zelatunen ateratako argazkia.

Ernio tontorrean.

Gutxi falta zaio Lormendiko eskailerari

Dagoeneko jarri dituzte dagokien lekuan Lormendiko eskailera osatzen duten zatiak, eta trabarik ez bada, datorren urrian martxan jartzea aurreikusten da. Eskaileraren insatalazioaz Thyssenkrupp Elevadores enpresa arduratuko da (lan zibilaz Altuna eta Uria enpresa arduratu zen).

Eskailera iritsi zen unea.

Turista gehienak abuztuan etorri dira

Aurtengo udan, ekainean hasi eta iraila erdia arte, Getariako Turismo Bulegotik 6.172 lagun pasa dira (iaz 9.553 izan ziren); horietatik guztietatik gehienak estatukoak izan dira, 4.404 lagun, eta beste 1.768 lagun atzerritik etorri dira. Espainiako Estatuko turisten artean, iaz bezala, kataluniarrak izan dira gehien bisitatu gaituztenak, 690 lagun; ondoren, hurrenez hurren, madrildarrak, 594, eta aragoitarrak 438 lagun.

Atzerritarren artean, aldiz, frantsesak dira gehienak, 635 lagun; ondoren, alemaniarrak 168 lagun, italiarrak 124, eta amerikarrak 116.

Bestalde, Euskal Herri osotik 919 lagunek bisitatu gaituzte.

Abuztua izan da bisita gehien izan dugun hilabetea, batez ere herriko festetako astean eta Donostiako Aste Nagusian.

Gazte Alaiak txistulari taldea

Getariak badu talde berri bat: Gazte Alaiak Txistulari Elkartea; taldea herriko txistulariek osatu dute, eta beraien asmoa jaietan eta herrian izan daitezkeen ekitaldietan parte hartzea da.

Taldearen entseguak astero izango dira, asteazkenetan, eta, Musika Eskolako gelaren bat erabiliko dute elkartzeko.

Oraingoz taldea 13 lagunek osatzen dute, baina edozein herritarrek hartu dezake parte.

Gazte Alaiak taldeko zenbait kide.

Bi saharar izan dira gure artean: Salama eta Ahmed

Salama eta Ahmed Getariako bi familiekin.

Aurreko urteetan bezala, Saharautz taldearen bitartez etorrita, aurten ere familia beretan izan ditugu Salama eta Ahmed Isalmu; uztailaren 10ean etorri ziren, eta irailaren hasieran joan. Hemengo egonaldia oso gustura pasa dute: bien kasuan bigarren urtea izan dute, eta dagoeneko herria eta bertako haur ugari ezagutzen dituzte.

Bestalde, datorren urtean ere familia berera etorriko dira, familiako kideek errepikatzeko asmoa dutela aitortu baitigute.

Getaria eta Zarautz arteko pasealekua

Nahiz eta ofizialki zabaldu ez, eta hainbat xehetasun amaitzeko izan, dagoeneko jende ugari dabil bi herrien arteko ibilbidean: oinez, ezinduen aulkietan, patinetan, bizikletan ikus daiteke jendea hara eta hona.

Pasealeku berriaren zati bat.

Elektrizitatea gorde.
Sagar-pulpa erabiliaz elektrizitatea gordetzeko sistema patentatzen da.

Sagardoa eta zukuak egin ondoren geratzen den pulpa argi-indarra gordetzen ahalbideratzen duen aktibaturiko ikatzak osatzeko lehengaia da. Sistema honen abantailarik handiena da gutxi kutsatzen duen jarduera dela, ez baita erasokorrak den kimika produkturik erabiltzen.

Sagar-pulpa erabiltzeak erakusten du askoz merkeago eta gutxiago kutsatzen duela. Gaur egun erabiltzen diren prozedurak askoz erasokorragoak dira eta gainera ondorengo garbiketa behar dute.

Led teknologia.
Semaforoetako bonbillak aldatzeko kanpaina hasi da. Led teknologia (diodoko lanparak) erabiltzeak energia asko aurreztea suposatzen du.

Dauden semaforoen % 15eko lanparak aldatuz gero, urtean orduko 48 gigavatio lortuko litzateke, 12.000 etxebizitzen argi-indarraren haina, eta atmosferara urtean 32.000 tona CO2 gutxiago isuriko litzateke.

Nahi duten udalei banatuko zaizkie LED teknologia duten lanparak, udalek bere gain hartuko dutelarik bonbilak aldatzea.

Argi indarraren %80a aurrezteaz aparte, bere fidagarritasunagatik, iraunkortasunagatik eta ematen duen argitasun hobeagatik trafikoaren segurtasuna igoko da.

Semaforoek itzali gabe funtzionatu behar dute, eta goritasun- edo halogenolanparak dituztenez, kontsumo handia izaten dute.

1995. urtean lortu zen kolore berdea diodo batean sortzea, semaforoetan sartzea ahalbideratu zuelarik.

Informazioa gehiago:
Tel.: 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

Herriko arraunlariekin hitzordua



Arraunak urarekin dantzan hastean entzun ohi da: sokarekin eginda dagoen estropu hotsa, hots berezia inondik ere. Beharbada izango da soinu horren hotsa entzun ez duenik, baina entzun duenak ezin esango du gustatzen ez zaionik. Estropua pertsonala eta besterezina izan ohi da, arraunlari bakoitzak bereak dauzka; arraun zaleek maite dituzten koloreak ere hala dira, pertsonalak, inondik ere aldatuko ez dituzten koloreak.

Dagoeneko 27 urte bete dituen Getariako Arraun Elkarteko kideak pozik daude aurten arraunlariek lortu dituzten emaitzekin: bai neskak trainerilletan, baita mutilak ere traineruan, jokatu dituzten ligak irabazi baitituzte. Gainera, Elkarteak maila guztietan izan dituzte herriko arraunlariak: neskek jubenil mailan jardun dute, eta mutilak, aldiz, infantiletan, kadetetan, jubeniletan (Orion ibili dira) eta senior mailan; halaber, horixe da Elkarteak duen helburu orokorra, Getariako gazteek arraun egitea.

Esperantzakoek bazuten ondo ibiliko ziren esperantza, izan ere trainerilletan egindako lana ikusita, bazuten goian ibiliko zirela pentsatzeko arrazoia, baina horren goian beharbada ez; gainera, denboraldiaren hasieran, bandera bat edo beste irabazteko ilusioa bazuten, baina ez irabazi dituzten adina. Denboraldi hasieran bazituzten zenbait helburu: esaterako, Euskadiko Txapelketarako sailkatzea, noski, Kontxarako sailkatzeko ametsa alde batera utzi gabe. Horrenbestez, amaitu da denboraldia, eta guztira 9 bandera irabazi dituzte: estropadetan 8 izan dira irabazitako banderak, eta KAE (ARC) Ligako bandera ere eskuratu dute (urrian 10. bandera jasoko dute, hain zuzen ere Gipuzkoako Federazioak emango diena). Bestalde, ehuneko batzuen aldea ezer gutxi da, apenas hasperen bat, baina erabat garrantzitsuak: play off-ak jokatzeko aukera eman zien, baina horiek falta izan zaizkie San Migel ligara igo ahal izateko.

Getariako Esperantza traineruan sei mutilek dute izena emanda, baina oro har, bostek jardun dute estropadak jokatzen: Gorka Areizaga, Uraitz Etxeberria, Iñaki Uzin, Egoitz Mateos eta Ander Etxegoien; aurten laugarren aldiz Orioko Arraunketa Elkartearekin elkarlan harremana izan dute. Horra hor bost arraunlariekin izandako elkarrizketa:

Getaria A E

Zer helburu zenuten arraunlari moduan?
Estropada politak egitea, lehen postuetan ibiltzea eta bandera irabazteko aukera izanez gero, irabaztea; batez ere ez huts egitea, hirugarren postutik atzera ez ibiltzea.

Baina hain ondo ibiliko zinetenik pentsatzen al zenuten denboraldi hasieran?
Ez, hirugarren, bigarren postuetan ibiltzea pentsatzen genuen, tarteka lehen posturen bat, baina hasiera batean hainbeste bandera irabaztea ez genuen espero.

Zer moduz moldatu zarete Orioko arraunlariekin?
Oso ondo moldatu gara, gustura; gainera, ez baginen beraiekin elkartu, ez zen trainerua osatuko, ez genuke Getariako arraunlariekin getariarren izenean arraunean egiteko aukerarik izango, izan ere, herrian oraindik ez baitago maila horretan jarduteko nahiko arraunlaririk.

Hilabete luzeetan gogor jarduten duzue arraun denboraldirako prestatzen; zerk engantxatzen zaituzte?
Sortzen den anbienteak: taldea bigarren koadrila balitz bezala da, izan ere, denbora asko pasatzen dugu elkarrekin. Ondo konponduz gero, ondo pasatzen da.

Zer alde dago neguko entrenamenduen eta udakoen artean?
Negukoak luzeagoak dira, kañeroagoak, fondoa hartzeko; udan lasaiagoak izaten dira.

Zer izaten da gogorrena?
Negua gogorra joaten da entrenamenduei dagokionez; udan, aldiz, parrandak eta... Dena den, ekipoan giro ona badago ez da horrenbesterakoa izaten. Bestalde, negu osoa entrenatzen pasa eta gero, udan emaitza kaxkarrak izatea oso gogorra izaten da, uda bukatzeko amorratzen egoten da orduan; pentsa, aurten konturatzerako uda pasa da!

Zer alde iaztik?
Oro har taldea berdina da, 3 edo 4 lagun aldatu dira; bestalde, urte bat gehiago da arraunean, elkar gehiago ezagutzen dugu...

Arraunean, ibaia ala itsasoa?
Guk ibaian arraunketan hobeto jardun dugu; Getaria beti hobeto ibili da itsasoan, baina guk hori aldatu egin dugu, izan ere entrenamenduak Orion egiten ditugu.

Getariako herritarren harrera ona izan da, ezta?
Bai, herritarrek egiten diguten harrera ezin hobea da, ilusioa egiten du altxerrira joan eta kolore marroia ikustea; hala ere, badira Oriorekin ibiltzea ulertzen ez dutenak.

Aurten kamiseta dotoreak jarri dituzue salgai; arrakasta izan dute, ezta?
Bai, arrakasta itzela izan dute: marrazkia gurekin ibilitako arraunlari batek egina da.

Zer moduz egin zenuten Kontxako estropada?
Emaitza aldetik gure ligako aurrenak izan ginen, baina hobeto egin genezakeen; denboraldi hasieran oso ondo egin genuen arraunean, baita bukaeran ere, baina tartean izan dira pare bat estropada ez garenak horren fin jardun: une horietan presio handia zegoen, guk arraunean ondo egin nahi, eta burua falta izan zaigu.

Play off-ak jokatzeko aukera izan duzue, baina azkenean ez da posible izan; zentezima batzuengatik galtzeak amorrua emango du, ezta?
Bai, hogei minututako estropa batean zentezima batzuengatik galtzeak kriston pena ematen du; entrenadoreak esan digu oso estropada ona egin genuela, gehiago ezin dela eman. Beraz, alde horretatik gustura, baina triste geratu gara, denboraldi ona egin dugu eta.

Getaria A E - Neskak

Aurten Getariako neskak lehen aldiz trainerillako tostetan ipurdiak eta atzaparrak txikitzen hasi dira; bateletan ibiliak dira, baina aurten trainerilletan ibiltzeko aukera izan dute lehen aldiz: Nerea Camio, Eneida Etxabe, Ainhoa Camio, Ane Bordagarai eta Nekane Arakistain (beste bi neskekin batera: Mertxe, Zarauztarra, eta Olatz, Zumaiarra). Nerea Camiorekin izan dugu hitzordua:

Bateletan eta trainerillan jardun duzue aurten, gustura?
Bai, oso gustura; bateletan aurreko urtetan ere ibili izan dira Getariako neskak, baina aurten lehen aldia da trainerilletan liga antolatu dena. Bateletan ligan hirugarren bukatu genuen, eta Gipuzkoako Txapelketan laugarren. Trainerilletan, ordea, ligan bi txalupa ibili gara eta lehenak izan gara; Gipuzkoako Txapelketan ere aurrenak izan ginen, eta Euskadiko Txapelketan hirugarren egin genuen.

Batela hala trainerilla?
Trainerilla gehiago gustatzen zait: batela txikiagoa da, leku gutxiago dago, arrauna libratzeko zailagoa da, gehiago kateatzen baita.

Gero eta gehiago dira arraunean jarduten duten neskak; gauzak aldatzen ari al dira?
Beti mutilen kirola bezala ikusi da: arraun egiteko mutilak bilatzea zaila bada, zer esanik ez neskak bilatzea. Maiz jendeak galdetu izan dit: nola joango zara arraunera? Baina badakizu, gustatu, eta aurrera.

Zer helburu izan duzue?
Bateletan txalupa asko ziren, eta irabaztea zaila zela bagenekien; beraz, jokatzea zen garrantzitsuena. Trainerillan bi lagun gehiago jartzean aurretik ibili gara, eta helburua irabaztea zen.

Zer izaten da gogorrena entrenamenduetan?
Egunak eta egunak daude; negua gogor xamarra izaten da, eguraldi txarra egiten duenean batez ere.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?
Estropada jokatzea: entrenamenduak astunak egiten dira, baina gure arteko giroa polita da, konfiantza sortzen da arraunlarien artean, oso ondo pasatzen dugu; elkarteko beste arraunlariekin ere harreman ona daukagu.

Datorren urteari begira zer asmo dituzue?
Guztiok utzi egingo dugu: aurten ere hala nola ibili gara ikasketak direla eta... Pena ematen du, baina zaila da.

Badira herritik kanpo jarduten duten Getariako hiru arraunlari, hain zuzen Zumaiako Aita Mari Arraun Elkartean: Xabier Eizagirre, Inge Iribar, eta Jon Larrañaga, eta Elkarte horretan 10, 6 eta 7 urte daramatzate hurrenez hurren. Aurten iaz baino errazago lortu dute TKE mailari eustea.
Oraingoan Telmo Deuneko patroiarekin, Xabier Eizagirrekin, aritu gara hizketan:

Dagoeneko 10 urte Telmo Deun gidatzen; gustura, ezta?
Bai, gustura nago, ongi zaindu naute urte guzti horietan; noiz edo noiz aspertuta ibili naiz, baina oro har, gustura ibili naiz.

Zumaian beste bi getariarrekin jarduten duzu, Inge eta Jon; zein izan duzue helburu nagusia?
Mailari eustea: aurten errazago lortu dugu, hamabitik zazpigarren amaitu dugu eta.

Zein izan duzue denboraldiko postu onena?
Castron bigarren egin genuenean.

Kontxan sartzea ez al zenuten helburu?
Ez zen helburua, ilusioa bai. Helburu bat jartzen denean, horretarako prestatzen gaituzte, entrenamenduak helburu horri zuzenduta daude. Gure kasuan, liga hasieran, kaña sartu ziguten, mailari eusteko posizio on bat ziurtatzeko; gero lasaiago jardun genuen, eta Kontxako estropadarako pare bat aste falta zela, berriro ere erritmoa gogortu ziguten.

Datorren urteari begira, jarraitzeko asmoa al daukazu?
Bai, nik jarraitzeko asmoa daukat.

Arraunean jardun beharko bazenu, non kokatuko zinateke traineruan'
Hori gorputzaren, arraunketaren arabera izaten da; beharbada brankan (proelian) jardungo nuke.

Itsaso txarra ala ona?
Txarrarekin gozatu egiten dut, hazi egiten naiz.

Dietarik jarri al dizute?
Normalean ez, baina aurten pixka bat zaindu naiz.

Arraun denboraldian zer izaten da gogorrena?
Batez ere asteburu guztiak okupatuta izatea.

Argazkia: Erun

Amaia Iribar eta Maider Ostolaza

Festak gogoratuz!!!

Dagoeneko ganbaran gordeta ditugu festetako bizipenak, baina orain artean argitaratzeko aukerarik izan ez dugunez, bi orrialde hauetan laburtu nahi izan ditugu Salbatore Jaiek emandakoa: Elkanoren Lehorreratzea, Marmitako Lehiaketa, Goitibehera, Kukañak, Danborrada…

Datorren urteko Salbatore Festetan gehiago!

Argazkia: J.M. Azpeitia

Argazkia: Erun

Pausoz pauso zelai handirako saltoa

Duela gutxi arte Getaria izan da Urola Kostan (Aia izan ezik) Futbol Taldea ez zuen herri bakarra, baina herriko hainbat laguni esker, jada badu futbol taldea: Getariako Keta Futbol Taldea, herriak historian izan duen lehena. Segur aski izerdiz blai bukatuko dituzte hemendik aurrera jokatu behar dituzten partidak, baina Getariako Keta Futbol Taldea gorpuzten bota duten izerdia ez da gutxirako izan.

Ideia

Futbol Taldea eratzearen ideia herriko hainbat gazteri sor zaio: horietako batzuk orain arte Areto Futbolean, plaierotan… aritutakoak dira; horiek guztiak zuten Futbol Taldea eratzeko ilusioa, baina batzuk besteak baino ezkorragoak ziren, izan ere, hasieratik ohartu ziren ez zela erraza izango, ideia gauzatu ahal izateko lan itzela egin beharra zegoela, ate asko jo beharko zutela erronka aurrera eraman ahal izateko...

Ilusioz puztuz

Hasieran eszeptiko ziren horiek ilusionatzen hasi ziren Eugenio Urangak bere laguntza eskaini zienean, izan ere, Eugenioren parte hartzea pizgarria izan zen guztia martxan jartzeko; bilera irekiak antolatu ziren Mariñelak Elkartean, baina betiko jendea elkartzen zenez, inguruko jendeari laguntza eske joan ziren, eta horrela lortu dituzte taldea ordezkatzeko beharrezkoak diren lagunak: Jose Ramon Aranguren (lehendakaria), Emidio (lehendakariordea), Eugenio Uranga (idazkaria), Nieves Garmendia (diruzaina) eta Joxe Joakin Iribar (bokala).

Bazkidetza eta babesleak

Ilusioa da doan duten gauza bakarra, izan ere, taldea ezerezetik hasi da, eta guztia dute gastu. Hasteko aurrekontu bat osatu dute urte guztian izan ditzaketen gastuekin: entrenatzeko materiala, jokatzeko arropa, herrian zelairik ez izatean beste herri bateko zelaia erabiltzeak suposatzen duen izugarrizko gastua... Dirua; betiko arazoa. Ondorioz, duela gutxi hasi eta martxan dagoen bazkidetza kanpainean dagoeneko 120 bat lagunek eman dute izena (jokalariak barne).

Bestalde, babesleak ere lortu dituzte, txikiak zein handiak, guztira 35 bat; babesle txikien artean herriko hainbat dendek, tabernek... eman dute dirulaguntza, eta babesle handien artean, berriz, Salanort kontserbak, Izarri okindegiak, Getariako Udalak eta Indauxek.

Futbol zelaia

Tamalez Getarian ez dago futbol zelairik, eta horrek beste herriko futbol zelaiak erabili beharra suposatzen du, bai entrenatzeko, bai futbol partidak jokatzeko; hasiera batean Zestoako Udalarekin jarri ziren harremanetan, Iraetako futbol zelaia erabili ahal izateko, baina ez zen posible izan, eta azkenean, Andoni Aristi alkateak Orioko Udalarekin lortutako akordioari esker, dagoeneko bertako futbol zelaia erabiltzen dute, eta jokalarien iritziz, azpimarratzekoa da Orioko Udalak eta Orioko Kirol Elkarteko zuzendariak eskaini dizkieten erraztasun guztiak.

Jokalariak eta entrenatzailea

Beste pauso garrantzitsua jokalariak eta entrenatzailea topatzea izan da; beharrezkoa iritzi diote taldean parte hartuko duten jokalariek denboraldi guztirako konpromisoa hartzea. Horrenbestez, taldea osatzen duten jokalari gehienak, hamabi, getariarrak dira, baina ez dira nahiko, eta ondorioz inguruko herrietara jo dute jokalari bila. Horrela Aiako, Zumaiako eta Zarauzko jokalariei esker, hogeita bi jokalariekin itxi ahal izan dute taldea; halaber, taldea gehienez hogeita bost lagunekoa izanik, hiru fitxa libre geratzen dira, eta nahi duenak Gabon inguruan fitxa egiteko aukera izango du. Bestalde, fitxatutako jokalariez gain, herriko beste hamahiru bat lagun animatu dira noizbehinka jokalariekin entrenatzera, nahiz eta ez izan fitxarik.

Entrenatzailea eta entrenatzaile ordea zarauztarrak dira: Adolfo Etxeberria eta Paxo (Juan Joxe Olazabal).

Taldea berria denez, beheko kategoriatik hasiko dira lanean: 2. erregional mailan hain zuzen ere (maila horren gainetik 1. erregional maila eta preferentea daude hurrenez hurren).

Ekipamendua

Astore etxearekin egin dituzte futbolean jokatzeko kamisetak: ohiko kamiseta grisa eta beltza izango da, marraduna, eta bigarrena, laranja kolorekoa.

Keta izena

Kondairak dionez, behin batean arrantzale gazte, langile eta bihotz oneko bat bizi zen, Keta izenekoa, emakume gehienen ametsa. Bi emakume zeuden Ketarekin maiteminduta, Itegi eta Alsakarte. Behin Ketak, bi emakumeak beragatik hil ala biziko borrokan ari zirela ikusita, bere burua, harri bihurtzeko erregutu zien jainkoei, eta hala sortu zen San Anton mendia. Emakumeak, hori ikusirik, erabat damutu ziren, eta gauza bera eskatu zieten jainkoei, eta horrela sortu ziren Altxokoarri eta Iteko lurmuturra. Keta harri bihurturiko mendixkaren alboan sortu zen herriak bere izena jaso zuen, Ketarri, Getaria.

Getariako Keta Futbol Taldea.

Partidak

Dagoeneko hasiak dira jokatzen: Zestoaren aurka jokatutako lagunartekoa eta gero, lehen partida ofiziala irailaren16an jokatu zuten, eta urte guztian 32 bat partida jokatu beharko dute euren mailan.

Bide batez, lerro hauen bidez, Getariako Keta Futbol Taldeko jokalariek eskerrak eman nahi dizkie hori guztia aurrera eramaten lagundu dieten guztiei: bazkideei, babesleei, familiakoei, Eugenio Urangari, Klubeko ordezkariei, alkateari, Orioko Udalari, Orioko Klubari eta bere zuzendariari eta beste hainbat lagunei. Gainera, herriko beste edozeinek beste futbol talde bat osatu nahi badu, edozer gauzetan laguntzeko prest daudela jakinarazi nahi dute.

Bidea hasi dute: pausoz pauso, hala egiten omen da eta.

] Udako Lehiaketa

ZER DAGO GAIZKI ONDOKO ARGAZKIAN?

UDAKO LEHIAKETAREN ERANTZUNA:

Zer aldatu dugu?

Kofradia zaharreko lehio bat kendu dugu.

IRABAZLEA:

Karmele Iribar

elan euskadi
ONGD - GGKE

Kultur Aniztasunaren Astea: alboan ditugunak ezagutu

Robert Putnam, Harvard Unibertsitateko doktoreak, polemika handia piztu zuen bere garaian "aniztasun etnikoa ez da ona" esaldiarekin. Ikerketa baten ondorio zen aipatu esaldia: bere esanetan, jatorri eta era ezberdinetako jende mota asko elkarrekin bizi denean, bizitza publikoak indarra galtzen du, ez garelako albokoaz erabat fio. Ondorioz, jendeak denbora gutxiago pasatzen du kalean beste jendearekin, elkarrekin ekintza gutxiago egiten dira, botua ematera ere gutxiago jotzen omen da. Indibidualismoa nagusitzen da.

Financial Times egunkariko iritzi emailea da Caldwell jauna. Bere esanetan, gai horren harira, komunitate bat osatzen duen jendearen artean aniztasun/ezberdintasun kopuru bat gainditzean ez dago komunitaterik, apurtu egiten da kontzeptu hori.

Ikusten duzuenez, munduan gizarte anitzak eta hainbat jatorriko jendea elkarrekin bizi direnak kaltegarriak direla irizten dioten korronteak hedatzen ari dira. Noski, kontrakoa pentsatzen dutenak ere bai.

Getarian, biztanleen %5a gutxi gorabehera kanpotik, atzerritik, etorritako jendeak osatzen du. Zalantzarik gabe bai beraiek eta bai bertan sortutakoak garenok elkarbizitzarako eta integraziorako lana egiten ari gara.

Hasieran aipatu dugun iritzien antzekoak oker daudela erakusteko adibidea eman nahi dute gure herrian Kultur Aniztasunaren Astea antolatu dutenek: Udalak, etorkinak, eta Elan-Euskadi Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

Irailaren 24tik 30era hainbat ekintza izango dira. Lehen egunean hitzaldia izango da Alondigan, 20:00etan hasita, "Banka etikoa" izenburupean, Juan Garibi, Fiare proiektuko zuzendaria arituko da. Ekonomia era etikoan aztertu eta erabakiak horren arabera hartzea bultzatu nahi dute (www.fiare.org). Hilaren 25ean "La masai blanca" filma eskainiko da, ondoren solasaldia egingo delarik. 2005eko filma da, benetan gertaturiko historia batean oinarritua. 26an "Etorkinak eta kartzela" izenburupean hitzaldia egingo da, Mikel Goenaga, kartzeletako pastoraleko kidearen eta Jose Mari Larrañaga Arrats elkarteko kidearen eskutik. Ostegunean beste film bat: "La batalla de Argel", Pontecorvorena. Zuribeltzean egindako maisu lana da, 1966koa. 28an bi ekintza izango dira, 18:00etan Hennatatuajeen tailerra, Berdura plazan. 20:00etan, munduari bira musikala, Talo DJaren eskutik, plazan. Tartean Txileko dantzen erakustaldia. Larunbatean ere bi hitzordu izango dira: 19:00etan, frontoian, jaimagunean, te dastaketa. Hainbat herrialdetako te eta infusioak dastatzeko aukera, eta musika Aritz DJaren eskutik. Gaueko 22:30ean, berriz, kontzertu solidarioa: Habana son, musika kubatarraren erritmoekin. Amaitzeko, igandean, 16:30ean, Munduari Bira Jolasean: munduko bost kontinentetako jolasak eta tailerrak haurrentzat. Aipatu aste guztian zehar Udaletxeko sarrera nagusian, Jon Iriarteren argazki erakusketa ere egongo dela ikusgai.

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

Amaia Lazkano
Miren Lazkano
San Prudentzioa auzoa
telefonoa: 943 14 00 67
Mugikorra: 669 258 061
faxa: 943 14 05 44
20808
GETARIA
Xabin Etxea
LANDA ETXEA - JATETXEA

Enbata horia, esperantza marroia

70 eko **HAMARKADA**. Astegun buruzuria eta herriko moila puri-purian: biraoak hitzetik hortzera, perlarik txikiena p...kumia, antxoaz betetako milaka kaxa baporeen kolore bereko egurrezko karroetan.

"Huan dala 30 urteko preziua ai txuk iten, m..... la madre superiora!" zigarroa ahotik kendu gabe, lepoko zain guztiak bistan dituela, oihuka dio batek.

"Eztuela patu nahi? Antxua putzuta! Nei etzie parreik ingo!"

Esan eta egin. Egun ia angula baino preziatuagoa den arrain urdina, moila barruko ur azalean mortu; edo moilako zoru adokinatua antxoaren zilarrezko azalez jantzita. Kiratsa ikaragarria eta plastikozko poltsekin alboko herritik etortzen diren auzoak, goragalea ezin eutsirik, "ze nazka" esanez.

Bitartean, oriotarrak bokan sartu ezinean, eta Getarian sartu nahi. Nahi eta ezin. Getariarrek ez diete uzten. Mehatxuak batzuek besteei, iskanbila ikaragarria eta hura konpontzeko, asteburuan Zarauzko musika-plazan zitatzen dira, "bakearen aldeko gailurra" egiteko.

Umeak jolasean dabiltza musika-plazan, kioskoan gora eta behera. Halako batean, oesteko filmeetan bezala, denak txistu batean desagertzen dira, arriskua usainduko balute bezala. Parroki aldetik lapajaleak; Otamenditik barrena ijitoak. PIN, PAN, PUN. Kale nagusiko benemeritakoak ere ez dira ausartzen Royaltitik aurrera, beren saguzar kapa eta guzti.

90eko HAMARKADA. Amabirjinaren festa, Zarauzko estropadetako 2. eguna. Kale Nagusiko leiho eta balkoiak trapu horiz apainduta. Musika-plaza sartu eta berdin: gora begiratuz gero AUPA ORIO nonahi. Parrokitik 1. tunelera manifa arraunlaria, kolore arrosako pintzelada batzuk, baita ñabardura moreak noizbehinka, baina horia da nagusi ezbairik gabe. Orio 5.000 biztanleko herria izanik, herria hutsik utzi al dute? Kontuak ez dira ateratzen eta noski, San Pelaiotik Narrosko Jauregira hamaika tautal badira hori-hori eginda.

00ko HAMARKADA (2000. urtetik 2010era, alegia). 2006.

urtean Donostiako estropadetan, arraunaren olinpiadan, enbatak Kontxako badian jo zuen. Azken sailkapenean zarauztarrak oriotarren aurretik. Lizardi eta Basarrin herrian zoramena, inoiz ikusi ez den ongi-etorria Enbatako arraunlariei. San Pelaiotik hasi eta Narroseko zubiraino denak axulez jantzita, kantari: "Enbata, gure Enbata, Euskal Herriko onena da-ta".

2007ko abuztua. Amabirjinaren festa, Zarauzko estropadetako 2. eguna, Kale nagusiko leiho eta balkoiak trapu urdinez apainduta. Parrokitik 1. tunelera manifa arraunlaria, kolore gorri pixka bat bada, baina urdina eta horia nagusi (biba la republika!). Urdina batez ere. Eta tentsioa nabari da giroan, Mollarritik alde batera eta bestera urak harrotuta dabiltza, lokala gora, lokala behera, urdinez jantzitakoei badirudi horiak alergia eragiten diela, polenak asmatikoei bezala. San Nikolasekoek 11 segundoko errenta zuten aurreko egunean lortua, baina Bermeo aldeko beste urdin batzuek bandera preziatua lege onez irabazi die. Estropada bukatuta badoaz denak Musikaplazara. Urdin batzuk pozik; beste urdinak, irri maltzurrak ezin eutsita, txakolinari zurrut eta zurrut ari dira.

2007ko abuztua. Getariako udaletxeko balkoia lepo beteta; mutil gazte lerden, garai eta sasoikoak denboraldiko 8. bandera alde batera eta bestera astintzen ari dira, herriko bandak lagunduta. Arraunlariak pozez zoratzen daude, elkarri besarkatuta, getariarren ulu eta gorazarreak gustura hartzen dituzte, nahiz eta erdiak baino gehiago oriotarrak izan. Oriotarrak Getariako udaletxean, heroi batzuen gisa, getariarren txalo eta animoak jasotzen.

2007ko abuztuaren 30a. Kontxako sailkapen estropada bukatu da. Getariako marroiak 11. geratu dira sailkapenean. Bi sudur-luze: bat txapela eta zapi marroiz jantzita, bestea kaka-koloreko elastikoarekin. Kristobal Balentziaga kaleko kirol-zale amorratuarekin topo egiten dute, kamiseta marroia soinean duela bera ere.

"Ze?" galdetzen dio sudurluzeetako batek.

Besteak ez du berehala erantzuten. Sorbaldak igotzen ditu, ezpainak itxi eta begiak gora igota hitz bakarra ateratzen da bere ahotik: Esperantza.

70eko HAMARKADA. Ordukoa omen zen Getarian ateratako azken trainerua. *Esperantza* izena zuen eta horregatik deitu zioten horrela oraingo traineruari.

Ziur naiz datorren sasoian ACT ligan izango garela. Ziur naiz gerra emango dugula, gainera. Tradizioa badugulako. Arrauna, toleta, estropua... zer diren kostako herri askok baino lehenago ikasi genuelako. Kontxako trapua irabazi duten herrien artean 7. garelako, Zumaiako Telmo Deun, Pedreña, Astillero eta Castroren aurretik. Salitre usainari beldurrik ez diogulako. Baina esperantzik gabe, beti ezin baikara esperantzaren menpe bizi. Ezin al zaio traineruari izena aldatu? Bixi-bixi, Katxapo, Artzape, Lapajale, Ketarri, Tximistarri... irabazteko animuak ematen duen izenen bat.

Agian aldizkarian traineru-rako izena aukeratzeko lehiaketa martxan jarri beharko genuke. Gero Arraun Elkarteko agintariek jakingo dute kasu egin edo esperantzarekin jarraitu.

Izena aldatu edo ez, izanak beti jarraituko du, kolore marroiak barru barruan. Zorionak egin duzuen sasoi ikaragarriagatik!

ERNAI IGO ERNIORA! (1)

Kaixo! Ni Larrun naiz eta ni izango naiz gaur irakurriko duzuen kondairako pertsonaietako bat, beharbada garrantzitsuena. Hala ere, ziur nago garai haietako edozein euskaldunek beteko lukeela nire lekua ni bezain ondo, ni ez banintz han izan.

Kondaira honek azaltzen digu nolako gorabeherak izan genituen euskaldunok Erromatarren armada gogorraren aurka, nire bihotzeko Ernio mendiaren magaletan.

Bazen orain dela bi mila urte inguru Larrun izeneko artzain gazte bat, bere arbasoen gisa Iturriotz inguruetan artzaintzan jarduten zuena. Egunez zelairik zelai ibiltzen zen bere artaldearekin, eta ilunabarra hurbiltzean bordara jaisten zen gozotasun eta babes bila. Baina, antzinatik zetorren ohitura edo eguneroko hura, gau madarikatu hartan puskatu zen: Larrun, gauero bezala, bordatik zerua ikustera irten zenean ohikoa ez zen su bat ikusi zuen, gaur egun Ernio deitzen diogun mendi puntan.
- Suba? Suba hor? -hasi zen bere buruari galdezka. -Mendi punta horretan ez diat sekula surik ikusi eta gurasoek ere inoiz ez ziatek su horren berririk eman.

Gau hura eta hurrengo eguna ere igaro ziren. Ilunabarrean Larrunek bere borda ingurutik berriro ere su harrigarria ikusi zuen, baita ondorengo bi gauetan ere. Urduritzen hasia zen gure artzain gaztea. Hirugarren egunean egonezinak jota mendi puntara igotzea erabaki zuen. Abiatzerakoan bere aitak ondorengo hitzak esan zizkion:
- Seme, adi ibili, hadi! kezka ematen zidak gaueko su madarikatu horrek. Badaezpada ernai igo hadi!

Kezkaz beteta baina ausardiaz abiatu zen Larrun mendi aldera. Bidean beste artzain lagun batzuekin egin zuen topo.
- Noa hoa heu bakarrik artalderik gabe?
- Esango dizuet pa, azkenaldian gauero mendi punta hartan suba pixten die, eta ze demontre gertatzen den ikustera niak!
- Guk ere ikusi diagu gaueroko su hori. Kontuz ibili hadi! Azken aldian Gatzume inguruetan ardi lapurreta asko ari omen dituk gertatzen, eta hortaz ernai igo hadi!

Entzundakoak entzunda, gure Larrun Ernio puntara igo beharrean alboko Gatzumera igo zen. Iritsi zenean oraindik egun-argiz zelako ilunabarraren zain gelditu zen Gatzumeko haitzetako zirrikitu batean ezkutaturik. Gauerdi aldera, garaia iritsi zenean, han azaldu zen mendi puntan egundoko suba.
- Zeinek eta zertarako egiten ote die suba? -Bere buruari horrelako galderak egiten ari zen bitartean, beste su bat piztu zen, gaur egun Aiako Harriak deritzon mendi gailurrean. -Hara nik oraindik ez nian beste su hori ikusi! Hortaz ez zegok dudarik, su horiek egiten dituztenak Erromatarrak dituk.

Isil-isilik igo zen bide berdinetik jaitsi zen Larrun. Bidean inguruko artzainei ikusi zuenaren berri eman zien:
- Zuek ez badakizue ere, Aiako Harrietako mehatzetan Erromatarrak zeudek eta haiek gauero suba pizten ditek. Horregatik Ernion suba pizten dutenak ere Erromatarrak direnaren susmoa diat. Hemen dabiltzan horiek, nik uste bezala, Erromatarrak badituk, ez dituk beraien gogoz hemendik joango eta abere lapurretekin jarraitzen baditek, akabo inguru hauetako behi eta ardiak! akabo gure bizimodua! Jendea bildu eta goian dauden Erromatarrei eraso egin behar ziegu, bestela nahi duten guztia egingo zigutek!

Bildutako ia denek aho batez eta urduritasun handiarekin arrazoia eman zioten Larrun gazteari.

Handik egun pare batera inguruko denak borrokarako prest zeuden; mutil gazte, gizon heldu eta tartean agure ausarten bat edo beste ere bazen. Eskuetan makila, sarde eta arkumeak hiltzeko erabiltzen zituzten labanak hartuta, abiatu ziren isil-isilik berrehun bat artzain gudari lanetara.

Gatzume inguruko basoetan ezkutatu ziren gizon gehienak gauak ematen duen iluntasunaren zain. Bitartean, Larrun eta beste bi kide, soinean ardi larruak jantzirik, Erromatarren ingurura hurbildu ziren, etsaia zelatatzeko asmoarekin. Kidetako batek horrela esan omen zion Larruni:
- Han, Larrun! hik esaten deken bezala ernai igo (Ernio) mendiaren magalean zeudek Erromatarrak. Beak ere zelatan (Zelatun) zeudek!

Ilunabarrerako Larrun eta bi kideak Gatzumen zain zeuden artzain-gudariekin bildu ziren eta bertan erabaki zuten eguneko lehen eguzki printzarekin eraso egitea.

Euskaldun gudariak prest zeuden eguzkiaren zain. Lehenengo printzarekin hasi ziren mendiarentzat arrotzak ziren soinuak entzuten: eraso oihuak hasieran, samin marruak ondoren, herio errezoak jarraian eta azkenik irabazleen irrintzi eta adar hotsak.

Hurrengo gauean ez zen subarik piztu Ernio muturrean..... *(jarraituko du)*

] moniren errezeta [

Txokolate tarta intxaurrekin

Osagarriak:

150 gr gurin

250 gr postretarako txokolate

200 gr azukre

3 arrautza

200 gr irin

Txokolatea eta gurina hurtu, maria bainuan, edo mikrouhin labean, eta biak ontzi batean nahastu.
Beste ontzi batean azukrea eta hiru arrautzak nahastu eta aurreko nahasketari gehitu.
Ondoren, guztiari irina bota, baina pixkanaka, pinportarik ez dadin egin.
Nahasketari intxaurrak gehitu eta labean sartu 175ºra 15 minutuz.
Animatu eta egin, goxoaz gain, egiteko erraza da eta.

On egin!!!

kritika / Izaskun Larrañaga

"Hildakoen entziklopedia" (liburua)

Idazlea: *: Danilo Kis (Serbia, 1935- Paris, 1989)*
Itzultzailea*: Monika Etxeberria (Deustua, 1963)*
Argitaletxea*: Alberdania & Elkar*
Argitalpen urtea*: 2005*



Kontakizun bilduma batekin natorkizue; bederatzi kontakizunez osatutako lana.

Danilo Kis idazle Serbiar handiak idatzi eta Monika Etxeberriak itzulitako eleberri handia. Lan horrez gain, idazle serbiarrak baditu beste bi obra garrantzitsu: *Hareazko erlojua* (1972) eta *Hilobi bat Boris Davidovitxentzat* (1979). Hildakoen entziklopedia ongi ulertzeko, aurreko bi eleberriak irakurrita izatea garrantzitsua da, baina ez ezinbesteko baldintza.

Lehen esanda bezala, bederatzi kontakizunez osatua dago; horrez gain, liburuaren amaieran Post Scriptum bat aurki dezakegu, eta gomendagarria litzake lehenengo aldiz Kis irakurtzera doanak, lehenik eta behin, atzeko testu hori irakurriko balu; honek idazlea hobeto ulertzen lagun gaitzake.

Bederatzi istorio horiek hainbat forma dute, hau da, bertan, kondaira, gutun, ikerketa filosofiko… itxurako testuak aurki ditzakegu. Itxurari dagokionez, badituzte aldeak baina antzekotasunik ere bada: bederatzi testu zati horietan errepikatzen den gaia heriotza da.

Danilo Kisek heriotza ukitzen duen gaia tratatzeko modu pertsonala da, esan genezake estilo propioa duela: hain iluna den gaia tratatzeko ironiaz baliatzen da, estilo barrokoa ere erabiltzen du bere lanetan…, azken finean, bere estiloa.

Lan sakona, indartsua era berean, heriotza beste ikuspuntu batetik ikusten lagun gaitzakeena.

Hortz Klinika
Argidental S.L.
Dr. J.L. Soulier
- Odontologia
- Periodontzia
- Endodontzia
- Inplantologia
- Prebentzioa
- Erreabilitazioa
- Hortz estetika
- Protesiak
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea 20800 ZARAUTZ
clinicadentalsoulier@ifonegocio.com T.: 943 130 278

GETARIARRON TOPAGUNEA
artzape
JARRI ZURE PUBLIZITATEA

] urriko agenda

] Irteerak

[Urriaren 4a, osteguna]
BILBORA IRTEERA
Noiz: 09:15ean
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea

[Urriaren 7a, igandea]
KILOMETROAK 2007,Viana Bergara
Izen ematea: Ekain dendan (azken eguna, urriaren 5a)

[Urriaren 21a, igandea]
NAFARROA OINEZ, Viana
Izen ematea: Ekain dendan (azken eguna, urriaren 19a)

[Urriaren 28a, igandea]
MENDI IRTEERA URBIARA
Noiz: 08:30ean
Antolatzailea: Gure Txeru

] Musika

[Urriaren 6a, larunbata]
BERTSO SAIOA
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren sailkapen fasea
Bertsolariak: Andoni Otamendi, Bixente Gorostidi, Oier Aizpurua, Jose Joakin Aizpurua, Jokin Labayen, Aitor Urbieta
Noiz: 18:00etan
Non: Iturzaeta Herri Eskolako antzokian

[Urriaren 20a, larunbata]
KONTZERTUA (ANOSOGNOSIA + IÑOR EZ + VENEREAL DISEASE + CAMARA DE GAS)
Noiz: 20:30ean
Non: Getariako gaztetxean

[Urriaren 21a, igandea]
KONTZERTUA (SLEEPPERS)
Noiz: 20:00etan
Non: Getariako gaztetxean

[Urriaren 27a, larunbata]
KONTZERTUA (BILGE PUMP+POTERGROOM)
Noiz: 21:00etan
Non: Getariako gaztetxean

] Pintura Eguna

[Urriaren 12a, ostirala]
12urte artekoak, AKUARELA TAILERRA
Noiz: 10:00etan
12 urtetik aurrera, GRAFFITI TAILERRA
Noiz: 09:30ean
Non: Frontoian, eguraldi txarrarekin kiroldegian
Antolatzailea: Getariako Guraso Elkartea

] Kirola

GETARIAKO V. GAZTE ETA HELDUEN ESKUZ BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA federatu gabeentzat
Hasiera: urrian

[Urriaren 12a,13a eta 14a]
GAZTETETAPEKO IV. SURF TXAPELKETA HERRIKOIA
Noiz: 09:00etan
Izena ematea: 5 €
Non: Berdura Plazan (eguna zehaztuko da)
Antolatzailea: Getariako Gaztetape Surf Elkartea
*** Parte hartzaile guztientzat bokatak egongo dira

[Urriaren 27a eta 28a]
EUSKAL SURF ZIRKUITUA
Non: Gaztetape hondartzan
Antolatzailea: Euskal Herriko Surf Federazioa

KIROLDEGIKO ESKAINTZA
Haurrentzat: GYN-JAZZ, PSIKOMOTRIZIDADEA, JUDO
Gazte eta helduentzat: AEROBIC, SPINNING, GIMNASIA, PILATES, TAI-CHI, FITNESS, KARDIO-MAKINAK, KARATE, CAPOEIRA.
Hasiera: urriaren 1a
Izen-ematea eta informazioa: 943 140432

] Ikastaroak

Hizkuntzak:
EUSKARA IKASTAROAK
INGELESA (haur eta helduentzat)

Musika Eskola:
TAILERRAK eta MUSIKATRESNAK

TXISTU IKASTAROA

Bestelakoak:
PINTURA TAILERRA (haur eta helduentzat)
BERTSO-ESKOLA

LITERATUR LANTEGIA

Gure Txeruk antolatutako ikastaroak:

ESKULAN TAILERRA
Noiz: urriaren 4an (zilar-bozelketa, mosaikoak, polikromatuak, egurrezko tresnak, gauzak zaharberritzea)

EUSKAL DANTZAK
Noiz: urriaren 1ean

PILOTA
Noiz: urriaren 2an (asteartea eta ostirala 17:00-18:00 / 18:00-19:00)
Ikastaroak
Izen-ematea eta informazioa: udaletxean edo liburutegian (Tel.: 943 89 60 24 - 943 89 61 47)

] Kz gunea

KZgunearen ordutegia:
17:00etatik 20:00etara
Astelehenetan, hamabost egunetik behin, tutorea egongo da urriaren 8an eta 22an (12:00-13:00)

] Hitzaldiak

[Urriaren 24a, asteazkena]
KONTSUMO JASANGARRIA, KONTSUMO ARDURATSUA
Noiz: 18:00etan
Non: Arrantzale Zaharren Elkartean
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea-Kutxa

] Gaztelekua

Noiz: ostiraletan, 17:00-20:00 eta larunbat eta igandetan, 16:00-20:00
Urriko gaia: UDAZKEN MIX

Urriaren 6a, larunbata: MUS TXAPELKETA
Urriaren 7a, igandea: Kilometroak (Bergara)
Urriaren 13a, larunbata: ESKU PILOTA TXAPELKETA
Urriaren 14a, igandea: Nafarroa Oinez (Viana)
Urriaren 20a, larunbata: TAILERRA: BROTXEAK
Urriaren 21a, igandea: BATUKA TAILERRA
Urriaren 27a, larunbata: PAGOETAra IRTEERA

] Besteak

[Urriaren 29a, astelehena] ,
ODOL-EMATEA
Noiz: 19:00etatik 21:00etara
Lekua: Getariako Osasun Zentroan
Antolatzailea:
Gure Txeru Elkartea

telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 957
Botika 943 140 441
Herri Eskola.....943 140 729
SOSdeiak 112
Kofradia 943 140 200

artzape aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: urriaren 15etik 21era (biak barne)

Ataloa

Tomas Otamendik utzitako argazkia.

Goian: Bernardino Larrañaga, Tomas Otamendi, Paxkual Iturbe eta Josu Aizpurua. Behean: Andoni Aizpurua, Juakin Burgaña, Kaximiro Alkorta, Luis Berasaluze eta Rufino Isasti.

Argazki hau 1967ko udaran, atunetan zebiltzala, Nuevo Kaximironan ateratakoa da. Ataloa (pez luna) arpoiaz jo zuten eta ikusten den bezala ikaragarria zen.

Arrain horrek 3 metro neurtu eta tona bat baino gehiago pisatu dezake: bere altuera, hegatsak barne, zabalera baino luzeagoa da. Gorputz zapaleko arraina da, disko forma duena. Arrain mota hori pelagikoa da, itsas zabalekoa, eta gure artean ikusten uztearen arrazoia zera da: itsas ertzean izaten diren arrainek garbi dezaten dator, horretan abilak baitira. Ataloaren garuna oso txikia da bere tamainarekin alderatzen badugu: esaterako, 200 kiloko ataloa baten garuna intxaur baten tamainakoa da.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu, deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.

zorion agurrak



Ander Iribar
Abuztuak 23
Nire ponpoxori, muxu handi bat eta… *Eongo gatxik!!*
Miren eta familia.

Aimar Iraola
Irailak 29
Zorionak etxeko denen partetika eta muxu potolo bat.

Nerea eta Izar Urresti
Urriak 6 eta 11
Gure etxeko izarrari eta printzesari zorionak eta muxu handi bana. Aitatxo eta amatxoren partetik.

Sara eta Xabier
Urriak 9 eta 7
Gure etxeko udazkeneko loreei. Aupa Sara eta Xabier, gatza ta piperraaaaaaa.

Gorka Azpeitia
Urriak 2
Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoen partetik.

Pepita Uzin
Urriak 18
Zorionak etxekoen partetik! Ondo pasa zure urtebetetze eguna.

Izaskun Larrañaga eta Irantzu Ezenarro
Irailak 22 eta urriak 4
Zorionak eta muxu erraldoi bana bioi!!!
Datorren bileran postrea zuen kontu.
Artzapeko lan-taldearen partetik.

Juanita Egurbide
Irailak 16
Zorionak birritan!
Gazte-gaztea eta jubilatuta!
Ondo pasa!

Maite Berasaluze
Irailak 20
Zorionak familia guztiaren partetik. Pastak eta kafearen zain gaude. Muxu handi bat!

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.